

Merkatuaren segmentazioa

Gure produktuek bezero mota ororentzako zuzenduta dago, nahiz eta gure ideia nagusiaren arabera ikasleentzat eta leku itxietan lana egiten duten beharginentzat, bideratuta egon. Covid-19aren garaia dela eta enpresaren sortzaileak elkarrekin gogoeta bat egin genuen eta ondorio batzuetara iritsi ginen: izurritearen hedapena ekiditeko ikastetxe hezkuntzari eskainita dauden leku guztietan, bulegoetan eta abarrezko lekuetan leihoak ireki behar dituzte edota aire girotua martxan jarri behar dute guneak aireztatuta mantendu daitezen.

Guztiok dakigun bezalaxe, neguan Euskal Herrian jasaten ditugun tenperaturak oso hotzak izaten ohi dira, eta are gehiago, Gipuzkoan , Bizkaian eta Nafarroako iparraldean klima ozeanikoaren hezetasuna dela-eta, hotza geure azalean gehiago nabaritzen dugu. Lan giro osasuntsu eta eroso bat eduki dezagun, hona datozte sugar jantzi klimatizatuak, gure lanpostuetan hotzik ez pairatzeko.

Geure arropak bere sistema adimentsuarekin elektrizitatearen bitartez 25 graduetara iritsi daiteken tenperatura igaro dezake, gehiegizko tenperaturarik ez hartzeko eta gure azalaren ongizatea bermatzeko. Jantzien barnean urari erresistenteak diren kable batzuk dauzka, sei ordutan zehar bero efektua eman dezaketenak. Sei ordu horiek igaro ostean, erositasun handiarekin kargagailu baten bidez karga daitezke.

Metodo hau erabiltzen duten produktu ugari sortu ditugu, adibidez: jertseak, prakak, berokiak, kiroletako jantziak, oinetakoak, eta abar.

Nahiz eta aipatu dugun ideia nagusia izan gure produktuak edonork erabili ditzake, adineko pertsonak, gaixotuta dagoen jendeak, haurrak, mendizaleak, eta abar. Uste dugu gure produktua praktikoa izan daitekeela gure gizartearentzako, bizitzen ari garen garaian batez ere.